

/ Nabarmentzekoak

- > Omenaldia Getxoko odol-emalleentzat (2. or.)
- > El Pacto-ren rocka Neguko Bidaiara iritsiko da (3. or.)
- > XIX. Abra Saria Algortako Kasinoan (3. or.)



Getxoko ElektrART enpresaren "VirtualizArte" proiektua saritu dute (4. or.)

Inauteriak. Otsailak 21, ostirala, 10:30etik aurrera, Eskola inauteriak. Hilak 22, larunbata, Romoko eta Areetako inauteriak, eta hilak 23, igandea, Andra Marin.

Antzerkia. Otsailak 22, larunbata, 20:00etan, Muxikebarri (Ereaga aretoa), "Erlauntza" Vaivén Produccionesen eskutik. Sarrera: 12€.

A-
GENDA

Udal-egoitzako "Pertsonarengan zentratutako arreta-ereduak" eguneroko jarduerak integratuko ditu autonomia bultzatzeko

Etxe bateko eguneroko jarduerak integratzea Jesusen Bihotza Udal Egoitzako erabiltzaileen autonomia errazteko, inguruko parte-hartzea errazte eta komunitatean sartzea bultzatzea dira *Pertsonarengan zentratutako arreta-eredu*aren helburuetako batzuk, eta egoitza gaur egun horretarako prestatzen ari da. Une honetan, zentroko langileak prestakuntza-prozesu batean murgilduta daude eredu hori ezartzeko, eta eredu hori aitzindaria da Bizkaian.

Iaz amaitutako egoitza birmoldatzeko obren ondoren, plantilla osatzen duten lanbide-kategoria desberdinetako 62 pertsonen prestakuntza-prozesu horretan parte hartzen jarraitzen dute. Helburua da eredu malguago bat ezartzea, erabiltzaileei egokitu zaiena, haien autonomia eta erabakitzeko gaitasuna garatuko dituen, haien konfidentziasuna babestuko duena, haien duintasuna eta bizi-historia bermatuko duena,



horietako bakoitzaren ezagutza jarduerak antolatzerakoan, eta familiak prozesuan integratuko dituen ere... 2019an egindako prestakuntza teoriakoaren ondoren, aurtun laguntza-saioak

egiten ari dira egoitzako solairuetan bizi diren 88 erabiltzaileekin (menpekotasunaren I., II. eta III. mailakoak), eredu hori ezartzeko beste urrats bat izanik. Saio horietan, hezitzaileak egoitzako

solairuetara hurbiltzen dira, eta langileekin batera, jarduerak egiten dituzte egoiliarrekin, beren izaerara eta ezaugarri pertsonaletara egokituta. Adibidez, oso garrantzitsua da ostatu hartutako pertsonen bizi-historia ezagutzea, zentroa horietara egokitu dadin, kontuan hartuta bakoitzak bere biografia duela, bakarra, bere bizitza eta duintasuna kontrolatzeko eskubidearekin.

Instalakuntzak

Lehenengo, hirugarren eta laugarren solairuak menpekotasunaren 2 eta 3 gradukoentzat dira. Bigarren pisuan hurrengoak daude: sendagilearen, farmazia, erizainen eta psikologia zerbitzuak, erabilera anitzeko aretoa, Etxebizitza Komunitarioa (menpekotasunaren lehenengo graduko 14 tokirekin) eta Eguneko Arreta udal Zerbitzua (menpekotasunaren lehenengo graduko 12 plazarekin).

Gas natural konprimatuko (GNK) lau furgoi, bi auto hibrido eta furgoneta elektriko bat gehitu ditu zoladuren mantentze-zerbitzurako

Gutxiago kutsatzen duten eta ingurumena gehiago errespetatzen duten ibilgailuen parkea handitu da

Udalak gutxiago kutsatzen duten eta ingurumena gehiago errespetatzen duten ibilgailuen parkea handitu berri du. Horretarako, gas natural konprimatuko lau furgoi (GNK), bi auto hibrido eta furgoneta elektriko bat erosi ditu; eta dagoeneko martxan jarri dira ibilgailu horiek, zoladuren mantentzeko udal-zerbitzuko lanetan jarduteko. Zazpi ibilgailu berri horiek aipatutako zerbitzu horretan sartzeak, beraz, ingurumena hobetzea dakar; izan ere, CO2 emisioak eta inpaktuak murriztuko dira, eta zarata gutxiago eta herritarrei traba gutxiago sortuko zaizkie.

Flota honek dagoeneko betetzen ditu Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planak (HMIP) ezarritako irizpideak. Plan horren helburuen artean dago emisio kutsatzaileak murriztea, eta, horretarako, besteak beste, pertsonentzat gutxiago kutsatzen duten eta ingurumena gehiago errespetatzen duten ibilgailuen erabilera sustatzeaz hitz egiten du. Hori guztia posible da Getxok dagoeneko badituelako beharrez-



ko azpiegiturak ibilgailu horiei gasa eta argindarra emateko. Hain zuzen ere, Larrañazubiko ingurumen gunean gas-zerbitzuegi edo gasdegi bat du Udalak, eta ibilgailu elektrikoentzako lau karga-gune entxufagarri, bi Fadura kiroleagietan eta beste bi Santa Klarako lursailean. Kargatzeko lau puntu horiei, laster, erabilera publikorako bi puntu gehiago batuko zaizkie Kirol Portuan eta beste zazpi Manuel Gainza parkean eraikitzen ari den aparkaleku berrian. Gainera, udaleko energia elektriko hornitzeko kontratuak (%100 jatorri berriztagarriko energia) hiru puntu berri jartzea jasotzen du. Horrekin, Udalak kargatzeko 16 puntu izango ditu, batzuk udal zerbitzuetarako eta besteak herritarrentzat.

Flota hori hiri-hondakinak biltzeko, bide-garbitzetarako, argiteria publikorako eta lorezaintzarako zerbitzuetarako lehendik dagoenarekin bat egiten du. Gaur egun, udal-flota jasagarriak 19 ibilgailu elektriko, 6 hibrido eta 18 gas-ibilgailu ditu.

OTSAILAK 13 OSTEGUNA

GetxoLive! Charlie Cosh taldearen kontzertua (rocka), 20:00etan, Areetako Glass Grill Urbano lokalean. Sarrera dohainik.

Gizatiar. Romo-Areetako Emakumeen Elkarte Sozio-kulturala. Ipuin-kontaketa. Gaia: "Amaiera gabeko memoria", Anabel Murrokin. 18:15ean, Romoko San José parrokiako lokaletan.

Hitzaldi-solasaldia. Romo Kultur Etxean, 19:00etan, "2020: Espainia Europan. Lehman Brothersen krisitik gaur egunera arte. Atzera begirakoa eta egiteke dauden erroka handiak". Hizlaria: Manfred Nolte (Ekonomia Zientzietan doktorea eta Deusto Business Schooleko irakaslea). Antolatzailea: EurGetxo- Herritarren Europako Elkarte.

OTSAILAK 14 OSTIRALA

Kontularien Kluba. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, ipuin-kontalari izan edo entzun nahi duten pertsona nagusiez osatutako taldearen saioa. Sarrera dohainik.

XIX. Abra Saria. Algortako Kasinoan, 22:00etan, afaria, eta jarraian, bertso-saioa. Aferia: 12€. Antolatzailea: ALBE.

Ustruku taldearen bilera 18:00etan Algortako Kultur Areatoan, familiarekin ahozotasuna lantzeko, Sendi ekimenaren barruan.

Zine-kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "Border" filmaren proiektzioa, jatorrizko bertsoan eta azpitituluekin. Zuzendaria: Ali Abbasi. Hizkuntza: suediera. 16 urtetik aurrera. Sarrera: 3,50€.

OTSAILAK 15 LARUNBATA

Neguko Bidaia zikloa. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, El Pacto taldearen kontzertua (rocka). Sarrera: 5€ (eskolako ikasleentzat, 3€).

Kafe tertuliak. 18:00etan Jabe-kuntza Eskola (Martikoena 16). Gonbidatua: Quan Zhou. Izena eman: <http://bit.ly/CafésConversatorios2020> Whatsapp: 655 60 38 09. Antolatzailea: Mujeres con Voz

OTSAILAK 16 IGANDEA

Antzerkia. Romo Kultur Etxean, 19:00etan, "Una verdad escondida en el bolso", Xankore Taldearekin. Sarrera: 3€. Emakumeak Eszenan 2020.

Haur Zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Bobby el erizo". Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

OTSAILAK 17 ASTELEHENA

Odol-ematea. Algortako Geltokia plazan. Goizez eta arratsalde.

OTSAILAK 18 ASTEARTEA

Mikrobiolentziari buruzko tailerra. 16:30ean, Romo Kultur Etxean. Plaza mugatuak. Antolatzailea: Getxoko Pentsiodunen Elkarte.

OTSAILAK 19 ASTEAZKENA

Kontatu erretratu hau. Romo Kultur Etxean, 17:30ean 60 urtetik gorako pertsonentzat tailerra eta parte-hartzeko solasaldia.

OTSAILAK 20 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. Romoko haur-liburutegian, 18:00etan, "Zorte txarreko otsoak" (euskaraz; 5 urtetik aurrera) Maite Frankoren eskutik.

Liburuaren aurkezpena. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, Mario Montenegroren "El diccionario de tu nombre" liburuaren aurkezpena.

Literatura solasaldia. Algortako Kasinoan, 19:45ean, Andrea Camilleriren "La pirámide del fango" liburuari buruzko solasaldia.

GetxoLive! YAO taldearen kontzertua (rocka), 20:00etan, Romoko Kandilejas tabernan. Sarrera dohainik.

Gizatiar. Romo-Areetako Emakumeen Elkarte Sozio-kulturala. Hitzaldia. Gaia: "Erorikoen prebentzioa". Hizlaria: Maite Pacheco (Gurutzetako Errehabilitazio zerbitzuko burua). 18:15ean, Romoko San José parrokiako lokaletan.

Odol-ematea. Areetako Geltokia plazan. Goizez eta arratsalde.

OTSAILAK 21 OSTIRALA

Eskola inauteriak. 10:30etik aurrera, Algorta-Andra Mari eta Romo-Areetan ikastetxeetako ikasleen kalejira, mozorroekin, musikarekin...

Zine-kluba. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "Yuli" filmaren proiektzioa. Zuzendaria: Iciar Bollain. 7 urtetik gora. 3,50€.

OTSAILAK 22 LARUNBATA

Romoko inauteriak. 12:00etatik aurrera, ekitaldi ugari Santa Eugenia plazan. 22:00etan, DJ. Antolatzailea: Romo eta Pinuetako inauteri batzordea.

Areetako inauteriak. Zenbait ekitaldi, 11:00etatik 14:15era, Eskoletako enparantzan. Antolatzailea: Berantzagi.

Ipuin kontaketa: Storytime. Romo Kultur Etxean, 11:00etan, "The world's worst witch" (ingelesez; familia osoarentzat) Kids & Us Algortaren eskutik. Sarrera dohainik.

Antzerkia. Muxikebarri (Ereaga aretoa), 20:00etan, "Erlauntza" Vaivén Produccionesen eskutik. Sarrera: 12€.

Neguko Bidaia zikloa. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, Halir Trio-ren kontzertua (bibolina, celloa eta pianoa). Sarrera: 5€ (eskolako ikasleentzat 3€).

Kafe tertuliak. 18:00etan Jabe-kuntza Eskola (Martikoena 16). Gonbidatua: Sabrina Sánchez. Izena eman: <http://bit.ly/CafésConversatorios2020> Whatsapp: 655 60 38 09. Antolatzailea: Mujeres con Voz.

OTSAILAK 23 IGANDEA

Andra Mariko inauteriak. Zenbait ekitaldi, 11:30etik 19:30era, Malakate parkean. Antolatzailea: Itxas Argia Dantza Taldea.

Haur Zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "La Lego película 2". Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

Antzerkia. Romo Kultur Etxean, 19:00etan, "Bernarda 5.0", Siroko Teatro taldearekin. Sarrera: 3€. Emakumeak Eszenan zirkuituan.

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.

Urgull kalea z.g., 4. Tel.: 94 466 03 20. 48991 Getxo.

e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus

Arte arduradunak: Bostnan Bilbao, S.L.

Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U.

Banaketa: Lantegi Batuak Fundazioaren

egunOn zerbitzua

Gordailu legala: BI-388-87



Aitortza publikoa Getxoko 65 odol-emailereri

Getxoko Odol Emaileen Elkar-teak, Bihotz Handi erakundeak, Getxoko 65 pertsona (9 emakume eta 56 gizon) omendu ditu jendaurrean. Omenaldia joan den ostiralean, hilaren 7an, ospatu zen Algortako Kultur Etxean. Omendutako pertsona horiek, 20 dohaintza (emakumeen ka-

suan) eta 25 dohaintza (gizonen kasuan) gainditu dituzte. Ekitaldian omendutako hogeita hamarretik gora odol-emaile izan ziren, Getxoko eta Bizkai-ko odol-emaileen elkarteetako kideek, Gizarte Kohesioko zinegotziak eta Itxas Argiako dantzariak lagunduta.

Ekitaldia "errekonozimendu publikoa da lan isil eta solidario honengatik, gaixotasun eta ebakuntza kirurgiko kasu askotan hain ezinbestekoa baita. Gure eskerrik beroena eta animorik handiena helarazi nahi diegu jarrera handi hau laguntzen eta kutsatzen jarrai dezaten", adierazi zuten Bihotz Handi elkarteok.

Berdintasunaren aldeko heziketa gizonentzat

Otsailaren 17an, beste prestakuntza-ziklo bat hasiko da Udalak sustatuta, Gizonduz-Emakunderekin elkarlanean bultzatutako Berdintasunareko Gizonak Taldea ekimenaren esparruan. Helburua da gaur egun gizon izateak esan nahi duenari buruz hitz egitea eta hausnartzea, eta gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baterantz aldatzeko eragile bihurtzea ere.

Prestakuntzak gizonen ereduak aldatzeko konpromiso pertsonala eta politikoa hartzeko eta finkatzeko tresnak eta baita indarkeria matxistaren aurkako zeregin aktiboa ere eskaini nahi dizkie talde horretako kideei eta hurbildu nahi duten gainerako gizonen. Otsailaren 17ko tailerreko gaia

Gizonak eta feminismoa izango da, martxoaren 16koa Gizonak eta zaintzak, apirilaren 20koa Gizonak eta maitasun erromantikoa-*ren mitoak* eta maiatzaren 18koa *Identitate maskulinoak eta sexu-aniztasuna*.

Berdintasunaren aldeko saio hauek Gizonduz elkarteko Josexu Rivierek emango ditu, Romo Kultur Etxean, 18:00etatik aurrera. Sarrera librea izango da, baina bertaratzea baieztatzea gomendatzen da (saio jakin baterako edo ziklo osorako) 944 660 136 telefono zenbakian edo berdintasuna@getxo.eus helbidean.

Hautzaindegi zerbitzua edo behar bereziren bat behar izanez gero, aipatutako telefono edo helbide elektronikora jo daiteke eskatzeko.

BERRILABURRAK

***Ama-hizkuntzaren Eguna.** Ama-hizkuntzaren Egunaren ospakizunak, **Hizkuntza Kantuan**, emango die hasiera aurten Bizilagunak ekimenaren jardueri, kultura-arteak eta askotariko topaguneak errazteko. Ospakizuna, hizkuntza ezberdinetako abestiek, igande honetan izango da, 18:00etan, Azebarri Kultur Elkarte (Algorta). Izena ematea gomendatzen da: tel.: 655 603 809 eta getxobizilagunak@gmail.com.

***Txokolatada solidarioa.** Haurren Minbiziaren Nazioarteko Egunaren harira, Nuestra Señora de Europa Ikastetxe IGE Gurasoen Elkarteak, zentroak berak eta Concilia enpresa getxotarrak bat egin dute Txokolatada Solidarioa ekimenarekin. Ostiral honetan izango da, hilak 14, 17:00etan, ikastetxe jolastokietan. <https://eltito.org/2020/02/06/chocolatada-solidaria/>



Zurumurruren kontrako gazteen harrera

Udalak bultzatutako Zurumurrurik Ez Estrategiako Gazteen taldeak Sopuertako San Viator ikastetxe, eta Txekia, Frantzia, Italia, Turkia eta Lituaniako ikastetxeetik etorritako 40 bat ikasle (14 eta 16 urte bitartekoak) jaso zituen pasa den astelehenean, hilak 10, Romo Kultur Etxean. Ikastetxe horiek Europako proiektu batean parte hartzen ari dira, eskola uzteari eta kultura-artekotasuneko

ikasteari buruzkoa hain zuzen ere. Carmen Diaz Kohesio Sozialeko zinegotziak eta Gonzalo Ayo Gazteriako zinegotziak ongi etorria egin zieten gazteei, eta kulturen arteko esparruan aurrera eramaten ari diren lan ildoak (harrera, sentsibilizazioa, integrazioa eta Zurumurruren aurkako estrategia) azaldu zizkieten ikasleei. Gazte getxotarrak euren lana azaldu zieten ikasle bisitariari.





El Pacto-ren rocka Neguko Bidaiara iritsiko da

El Pacto taldeak, Bizkaiko rock musikari bertutetsuenek eta eskarmentu handikoez osatutako taldeak, kontzertua

Poltsa batean ezkutatuak egia, RKEn

Romo Kultur Etxea-RKEk *Una verdad escondida en un bolso* antzezlan taularatuko du igande honetan, hilak 16, Xankore antzerki taldearen eskutik. Emakumeak Eszenan zirkuituaren barruan egingo da muntaketa, 19:00etan, eta 3 euroko prezioa izango du.

Sinopsia

Goizero, *Violeta* parkera joaten da bere liburua irakurtzera gogokoen duen bankuan, bi mojek beren ohiko ibilaldia egiten dute eta bi ahizpa parke beretik irteten dira korrika egitera. Gaur, euren bizitzak aldatuko dituen ezezagun batekin egingo dute topo, urte askoan ezkutatuak egia bat argituko duen norbaitekin.

Taldea

Felipe Cuétarak zuzendutako Xankore taldeak 20 urte baino gehiago darमतat Bizkaiko eta inguruko agertokieta. Gernikako emakumez osatua, Alegría-Dulantzik 2006ko Amateur Antzerki Jaialdian publikoaren saria jaso zuen *Platos rotos* lanagatik, Patxi Bilbaok idatzia eta zuzendua.

eskainiko du larunbatean, otsailak 15, Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, Neguko Bidaia zikloaren barruan. Emanaldia 19:30ean hasiko da eta sarreraren prezioa 5 eurokoa izango da (3€ eskolako ikasleentzat).

El Pacto 2012an sortu zen, Castro Urdiales eta Bizkaia artean, eta, zenbait kidek parte hartu badute ere, gaur egun bere sortzaileetako bik osatzen dute: Mario Marrodán (ahotsa) eta Juan Carlos Gómez (bateria), eta haiekin batera Alberto Eguía (teklatuak), Ramon Escobar (gitarra) eta Gontzal Alonso (baxua). 70, 80 eta 90eko hamarkadetakoa rock klasikoaren errepertorio bat interpretatuko dute.



Kanseniako eskola baten aldeko kontzertua

Igandean, otsailak 16, 18:00etan hasita, Kongoko Errepublika Demokratiko Kansenian abian den eskolaratze proiektu baten aldeko kontzertu solidarioa izango da Algortako San Martin eleizan. San Martineko Misioetako

talde-elkarteak, Udalaren laguntzarekin, antolatutako emanaldia Txaramela Musika Eskolako haurren koroak eskainiko du. Sarrera doakoa izango da eta publikoari borondatea eskatuko zaio, proiekturako bideratzeko.

XIX. Abra Saria Algortako Kasinoan

Euskal Herriko sei bertsolari gaztek parte hartuko dute ostiralean, otsailak 14, XIX. Abra Sarian, Algortako Kasinoan, 22:00etan. Saio horretan Lasarte-Oriako Lierni Rekondo, Aramaioko Martin Abarrategi, Berako Ekhiñe Za-

piain, Urruñako Irati Alcantarilla, Berangoko Maddalen Ruesgas eta Getxoko Aritz Landeta bertsolariek hartuko dute parte. Informazioa: ALBE-Algortako Bertsolari Eskola. Tel. 605 704 385.



“Burdinsare, el honor de un berrozi” argitaratu da

Juan Carlos Perez idazle getxotarrak bere azken eleberria aurkeztu du, *Burdinsare, el honor de un berrozi*; fikziozko lana da, pertsonaia erreal batzuetan oinarritua, eta bere aurreko liburuaren bigarren zati gisa aurkeztu du, hau da, *Atentado: la conjura de Igeldo-ren jarraipena*. Ekintza kokatzen da Miguel Angel Revilla presidente izan zeneko azken garaian, zeinak babesa bilatzen duen lagun euskaldun baten antzinako ohorezko zor batean, Martin Ttipia Ertzaintzaren Berroziarenean hain zuzen. Ausardiaren apustu irmoa izuaren aurrean, uste sendoarena erabaki ezaren aurrean.

3. Ttan Ttakun Txalaparta Jaialdia

Algortako Txalaparta taldeak eta Azebarri kultur elkarteak Ttan Ttakun Txalaparta Jaialdiaren 3. edizioa antolatu dute ostiral eta larunbaterako, otsailak 14 eta 15, txalaparta ohiko eszenatik jaitzi eta jendeari hurbiltzeko. Ostiralean, 19:00etatik aurrera DJ+ Trikitilariak+ Txalaparta izango dira eta larunbatean, 09:30etik aurrera, txalaparta eskola magistralak, Bihotx taldea, hamaiketakoak, eskolak eta bazkaria izango dira, besteak beste. Bazkariaren prezioa 16€koa da eta interesatuek izena eman beharko dute azebarri@gmail.com helbide elektronikoan edo 688 652 917 telefono zenbakian.

KIROLAK

Raspas Espainiako 2. klub onena Distantzia Luzean

Raspas Arraun bigarren klub onena izan zen aulki mugikorrek Distantzia Luzeko Espainiako Txapelketan, aurreko asteburuan Castrelo do Miñon (Ourense). Urrezko hiru eta brontzezko bi dominarekin, Club Náutico Amposta talde kataluniarrak bakarrik gainditu zuen -hiru urre, zilar bat eta brontze bi-. Hirugarrena beste talde kataluniar bat izan zen, Natació Banyoles -bi urre, zilar bat eta brontze bat-.

Raspasek urrezko domina lortu zuen skiffean (1X), gazte eta kadeteetan, Maialen Mielgo eta Aitor Blanco-ekin, eta maila absolutuan, Virginia Diaz protagonista zelarik. Bi brontzeak, absolutuko lemaizain gabeko bi-koarentzat (2-), Ondiz Lekubarrak eta Izaskun Etxaniz-ek osatutakoa, eta Aimar Astigarraga gaztearen skifarentzat izan ziren.

Bestalde, Euskadi, getxotar ordezkariak handiarekin (20 arraunlari Raspasekoak eta 2 Getxo Arraunekoak), 3. izan zen selekzio autonomikoen Txapelketan.



Maratoi solidarioa basamortuan

Begoña Beristain atleta getxotarra Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetara itzuliko da, basamortuan zehar maratoi bat egiteko, elkartzasuna helburu duen lasterketa. Oraingo honetan, Saharako haurrei emango zaion kirol materiala dohaintzan eman du Getxo Kirolak-ek, kirola egitea sustatu eta ume horiek horretarako beharrezkoak diren ekipamenduez hornitu asmoz. Beristainek 2017ko edizioan parte hartu zuen, emakumezkoen kategorian 3. postuan sailkatuz, eta 2018an, betaranoen mailan garaipena lortu zuenean, 10 kilometroko proban.

50 domina Getxo IWrentzat, Bizkaiko Txapelketan

Guztira 50 domina -17 urre, 18 zilar eta 15 lortu zizuten Getxo Igeriketa Waterpoloko igerilariak duela gutxi Galdakaon jokatuak Bizkaiko Txapelketan, kimu eta haurren kategorietan. Getxoko ordezkariak zabalaren honako emaitza hauek nabarmendu behar dira: Lexuri Olallaren 15 urteko haurren urrezko bi dominak, 200 eta 400 libreetan; Aritz Cabezoneren urrezko dominak, 400 estilo eta 400 libreetan; eta Gaizka Landaren urrezko dominak, 800 eta 1.500 estilo libreetan. Eta 13 urteko kimuetan, Irene Peraren bi urreak, 100 eta 200 libreetan.

Erreleboen atalean ere igerilari getxotarrak nabarmendu ziren bi kategorietan, bederatziko domina lortu baitzituzten (urrezko bost, zilarrezko hiru eta brontzezko bat).

Bestalde, Fernando Téllez getxotarrak lau domina lortu zituen joan den asteburuan Oviedon jokatuak Espainiako Igeriketa Masterreko Txapelketetan.



Fadurako kiroldegian vending osasungarriko zerbitzu berria dago

Fadurako kiroldegiak produktu osasungarriak eskaintzen dituen vending gune berria ipini du. Produktu osasungarri horiek garatzeko ekimena iaz abiatu zuten udal kiroldegian, elikadura ego-kia sustatzeko Getxo Erika udal-programaren bitartez eta Azti Tecnaliarekin lankidetzan. Produktu horien zerrenda osatzeko, eskaintza aztertu eta askotariko elikagai-sorta hautatu da, osoagoa den elikagai-sorta. Hautaketa horrek bat egiten du Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila Euskadin elikadura osasungarria bultzatzeko gauzatzen ari den ekimenekin, eta NAOS Estrategiak finkatzen dituen nazioarteko osasun-irizpideekin. Irizpide horiek, hain zuzen ere, nutrizioari, ariketa fisikoari eta loditasuna prebenitzeari ematen diete garrantzia. Produktu osasungarrien vending zerbi-

tzuaeren helburua da gutxienez eskaintako produktuen %50ek bete ditzatela loditasun-tasak jaisteko nazioarteko osasun-erakundeek ezarritako irizpideak. Hala, eskaintzaren barruan daude frutak eta entsaladak, koipe gutxiko elikagaiak, palmondo-oliorik gabekoak, gehitutako azukrerik gabekoak, laktosarik gabekoak eta zeliakoentzat egokiak. Era berean, hainbat hobekuntza egin dira zerbitzuaren ingurumen-inpaktua gutxitzeko, esate baterako birziklatutako kartoizko edalontziak erabiltzea, nork bere edalontzia erabiltzeko aukera ematea eta elementu biodegradagarriak erabiltzea.

Vending gunea igerilekuen eraikin nagusiaren goiko solairuan paratu dute, aisialdi-gunean eta kiroldegiko ikasketagelen ondoan.



“Getxo Erika”ren gogoeta-jardunaldia, 2020ko ibilbidea aztertzeko

Datorren asteazkenean, otsailaren 19an, *Getxo Erika*-k, Getxo Kirolak-ek eta Udaleko Ekonomia Sustatzeko Arloak udalerrian elikadura osasungarria eta jasangarria bultzatzeko sustatutako guneak, hausnarketa-jardunaldi bat egingo du ekimenean hiru urteetan parte hartu duten eragile guztiekin; bertan aztertuko da 2020an ekimenak zein norabide hartu behar duen. Topaketa Getxo Elkartegian izango da (Ogoño 1, Areeta) 12:00etan. Helburua da *Getxo Erika* komunitatea osatzen duten pertsona eta erakunde guztiak biltzea, elikaduraren balio-kateko maila desberdinak ordezkatzeko dituztenak: ekoizpena, eraldaketa, merkaturatzea, zaharberritzea, kontsumoa, hezkuntza, osasuna... baita ekimen honetan parte hartzeko interesa duten eragile berriak


ere. Jardunaldia 14:30ean amaituko da, komunitateko kideek antolatutako catering osasungarri bat dastatuz. 2018an abiatu zenetik, elkarrizketa osasungarriak eta sentsibilizazio-ekimenak bultzatu ditu elikadura osasungarria eta jasangarria mantentzearen garrantziari buruz, balioa eman die elikadura osasungarriaren inguruko tokiko jardunbide egokiei, eta nabarmendu ditu elikadura-ohitura onak mantentzearen garrantzia hedatzen egunez egun laguntzen duten eragile garrantzitsuak. Elikadura osasungarriaren inguruko ekonomia sortzeko enpresa-ekimenak ere babestu eta sustatu ditu, eta, pixkanaka, komunitate bizia eraiki du elikadura osasungarriarekin lotutako hainbat interesen inguruan. Izena emateko: <https://bit.ly/2w05ynL>

Getxoko ElektrART enpresaren “Virtualiz_ARTE” proiektua saritu dute

Espainiako Kultura eta Kirol Ministerioak Getxoko ElektrART Innovación Cultural y Tecnología enpresaren *Virtualiz_ARTE* izeneko proiektua nabarmendu du 2019. urtean finantzaketa jaso zuten Kultura eta Sormen Industrietako (KSI) hamar proiektu onenen artean. Ingurune teknologiko bat garatzeko proiektua da eta bere helburua margolanen animazioa sortzea eta museoetan esperientzia inmersiboa bultzatzea da. Ministerioak 40.000 euroko laguntza eman die teknika hobetu dezaten.

ElektrART 2018. urtean sortu zen, Getxon du egoitza eta estatuko sektore horretako onenariokoen lehiatzen da jada. Lau lagunek osatzen dute, eta honela definitzen dute euren lantaldea: “diziplina anitzeko artista eta teknologoen kolektiboa, zeinak artea eta teknologia uztartuz sortzen baitu”.

2018ko ekainean, Romo Kultur Etxeko kultur egitarauari hasiera emateko ikuskizun bisual eta musikala sortu zuten. Ekitaldiaren lehenengo zatian, *video-mapping* bat proiektatu zen eta bertan Andres Isasi Musika Eskolako ikasle nahiz irakasleek soinu-banda jarri zieten eraikinaren fatxadan ikusgai egon ziren irudiei.



Jon Astorkiza, Elektrart-en sortzailea eta CEO (ezkerrean), eta Jacobo Noboa, zuzendari sortzailea, Adriana Moscoso del Prado Kultura Industrien eta Lankidetzaren zuzendari nagusiarekin batera.

Landare inbaditzaileei buruzko tailerra

Udaleko Ingurumen arloak tailer praktikoa antolatu du Bolueko hezegunean, datorren larunbatean, otsailaren 22an, 10:00etatik 13:00etara. Jarduera hau *Getxonatura*: ezagutu eta zaindu ezazu goiburuko jardunaldien barruan dago. Eta sarrerako hitzaldi labur bat izango da, alde aurretik, hezegunean dagoen Ponpa-etxean. Bertan, espezie exotiko inbaditzaileak tratatuko dira, zein diren, zer arazok sortzen duten, zer egin dezakegun arazo horiek saihesteko eta, ahal bada, konpontzeko. Ondoren, ibilbide bat egingo da espezie horiek (arbustu japoniarra, tximeleten landarea eta basabarratxuria, besteak beste) identifikatzeko eta espezie horiek ezabatzeko dauden metodoak ezagutzeko.

Tailerra 7 urtetik aurrerako pertsonen eta ingurune naturalaren kontserbazioan interesa duten taldeei zuzenduta dago, bereziki Bolueko hezegunearena. Ur-botak eta jantzi egokiak eramatea gomendatzen da (arropa zaharra, oso litekeena baita lokatzez zikintzea, eta mahuka luzeak). Parte hartzeko beharrezkoa da alde aurretik boluenatura@gmail.com helbidean izena ematea.